

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure bezeroak normalean denbora gutxi duten pertsonak dira, ekitaldi berezi bat antolatu nahi dutenak baina esperientziarik edo denborarik ez dutenak. Kalitatea, fidagarritasuna eta estresik gabeko antolaketa baloratzen dituzte, eta arreta pertsonalizatua bilatzen dute, ekitaldia euren gustu eta beharretara egokituta egon dadin. Gainera, aurrekontu desberdinak dituzte eta gero eta gehiago dira ingurumenarekiko kontzientzia duten bezeroak, plastiko gutxiago erabiltzen duten eta produktu lokalekin lan egiten duten enpresak lehenesten dituztenak.